

Erregioen Komitea 2000.eko Gobernuarteko Konferentziaren aurrean¹

(The Committee of the Regions before the 2000 Intergovernmental Conference)

ZELAIA GARAGARZA, Maite

Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal, 4
20018 Donostia
dapzegam@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 87-94]

E

usko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailaren barnean sortu berria den Europa-Euskal Herria Taldeak antolatuturik, *Erregioen Komitea 2000. urteko Gobernuarteko Konferentziaren aurrean* titulupeko Jardunaldiak ospatu ziren Donostiako Miramar Jauregian. Jardunaldiotan Europako erregioek eta Erregioen Komiteak aipatu Konferentziarekiko aldarrikatutako planteamenduen azterketari ekin zitzaion, hainbat ordezkari politiko eta unibertsitateko irakasleren laguntzaz.

E

l Palacio de Miramar fue escenario de las Jornadas sobre *El Comité de las Regiones ante la Conferencia Intergubernamental del 2000* que organizó el grupo Europa-Euskal Herria, integrado en la Sección de Derecho de la Sociedad de Estudios Vascos. Representantes políticos y docentes universitarios procedieron al estudio de los planteamientos que las regiones europeas y el Comité de las Regiones presentaron en la mencionada Conferencia.

Z

es Journées sur *El Comité de las Regiones ante la Conferencia Intergubernamental del 2000* (Le Comité des Régions face à la conférence Intergouvernementale de l'an 2000) organisée par le groupe Europa-Euskal Herria, intégré dans la Section de Droit de la Société d'Etudes Basques eut lieu au Palacio de Miramar. Des représentants politiques et des professeurs universitaires procédèrent à l'étude des énoncés présentés par les régions européennes et le Comité des Régions au cours de cette Conférence.

1. Kronika honen gaztelerazko bertsioa *Revista Vasca de Administración Pública-Herri Ardularitza*zko Euskal Aldizkaria-ren datorren zenbakian argitaratuko da.

Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailaren barnean sortu berria den Europa-Euskal Herria Taldeak antolatutako, *Erregioen Komitea 2000. urteko Gobernuarteko Konferentziaren aurrean* titulupean, egun bateko Jardunaldiak ospatu ziren apirilaren 14an Donostiako Miramar Jauregian. Bertan, Europako erregioek –eta zehazkiago, Austriako Landerrak, Kataluniak eta Euskal Autonomia Erkidegoak– eta Erregioen Komiteak aipatu Konferentziarekiko aldarrikaturiko planteiamentuen azterketari ekin zitzaion.

Gobernuarteko Konferentzia, aurtengo otsailaren 14an funtzionamenduan hasi denetik, Amsterdameko Tratatuak bere garaian erabakitzeke utzi zituen erakundezko gaien konponbidea emateko helburuarekin biltzen da, gai hauek Europako Batasunaren zabaltze prozesua abian jarri aurretik zehaztu beharrekoak baitira. Gai horien artean, besteak beste, Europako Komisioaren osaketa eta Kontseiluko botuen ponderazioa aipa genitzake.

Aipatu Konferentzian Estatuaren ordezkariak direnez legitimaturiko parte-hartzaileak, erregioek –eta, Estatu espainiarraren kasuan, erkidego autonomoek– ez daukate zuzeneko parte-hartzea gauzatzeko egokierarik, ezta Erregioen Komiteak ere, zeina Europako Batasuna osatzen duten Estatuetakoa administrazio lokal eta erregionalak ordezkatzeko dituen organu kontsultiboa den.

Aztergaia aipaturikoa izanik, egun bateko iraupeneko Jardunaldiotan, auziaren analisi akademikoari ekiteaz gain, ikuspegi politikoa erreferentziatzen hartuta, zenbait erregiotako ordezkari politikoen, eremu praktikoaren azterketari heldu zioten. Ikuspegi bikoitza, beraz, objektu beraren ikerketarako erabiliko dena.

Ekitaldiari hasiera ematearen arduradunak, Ana Toledo andrea, Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako lehendakariordea, eta Joxerramon Bengoetxea Caballero jauna, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea, izan ziren. Lehenak, Jardunaldien aztergaia eta Eusko Ikaskuntzaren nortasuna bera uztartu zituen irekierako ponentzian. Hain zuzen ere, oraingo honetan Eusko Ikaskuntzak bere barnean hartzen du eredu europarrari buruzko eztabaida eta bere sorrerako espirituari erantzunez, izaera akademikoa duen foro hau antolatuz, ukalezina den egunerokotasuna duen gai honi buruz.

Eusko Jaurlaritzako sailburuordeak, bere aldetik, inaugurazioko ekintza formalean kargu politikoa gisa jokatu bazuen ere, hitzaldian plazaraturiko iritziak bereak, propioak, zirela argitu zuen, ez Eusko Jaurlaritzako ordezkari bezala eginak, alegia. Berak agindu lez, plazaratu zituen ideiek, ondorengo ponentzietan aurkeztuko zenaren aurrekin edo abantze bezala funtzionatu zuten. Horrela, Bengoetxea jaunak, abiapuntuan kokatu beharreko zenbait ideiarik egin ziren erreferentzia.

“ **Gobernuarteko Konferentzia, Amsterdameko Tratatuak bere garaian erabakitzeke utzi zituen erakundezko gaien konponbidea emateko helburuarekin biltzen da** ”

Batetik, Europa eta beronen eraikuntza prozesuan, aldaketa “konstituzionalek” ez dutela beldurrik sortzen baieztatu zuen Bengoetxea jaunak, Estatuaren ikuspegi konstituzionaletik onartzen zailagoa izan daitekeen ideia, hain zuzen ere. Are gehiago, aldaketa hauetan inolako arriskurik ez aurreikusteaz gain, integrazio europarrean sakontzeko erabilgarriak diren bitartekotzat jotzen dira aldaketak.

Bestetik, lauogeigarren hamarkadaren bukaeran, Europaren eraikuntzarako oinarrikoak diren gertakariak burutu direla ekarri digu gogora hizlariak: erregionalizazioaren prozesuari erantzuten hasten zaio, Estatu kideen barnean kokaturiko pluraltasun nazional ezberdinekiko sentsibilitate jaioberri bat erakutsiz. Honen ildotik, 1992. urtean Maastricht-eko Tratatuak sortzen da, besteak beste, erregionalizazioaren fenomenoaz arduratzeko. Testu honek barneraturiko elementurik interesgarrien artean, subsidiaritatearen printzipioari –hasiera batean, Estatu kide eta erakunde komunitarioen arteko harremanetan soilik aplikatzeko aurreikusitako printzipio artikulatzailea, nahiz eta ondoren, Amsterdameko Tratatuaren Deklarazio batean aintzatesten den bezala, Estatu deszentralizatuen barnean ere aplikagarritzat jo den– eta Erregioen Komitearen sorrerari egin ziren aipamena mintzalariak. Beronen esanetan, organu honen sorrera Estatu kide ugarian finkaturiko Estaturik gabeko nazioen eskabideak neutralizatzeko formula defentsiboa besterik ez zen izan, azken finean, bere egiturak eta izaerak erabat indargabetzen baitute.

Egoera honetan, berrikusketa berrira iristen gara, Agenda 2000 oinarrian izanik, zenbait gai berririko azterketari oratzen zaielarik. Batetik, Bengoetxea jaunak adierazi zuenez, mundu

“ Erregioen Komitearen sorrera, Estaturik gabeko nazioen eskabideak neutralizatzeko formula defentsiboa besterik ez zen izan ”

mailan ematen ari diren aldaketek, globalizazioa eta digitalizazioa medio, erregioen gain eragina izango dutela egitate ukalez litzateke. Bigarrenik, Europako Batasuna Ekialdeko Europara zabaltzeak erregionalizazio prozesuan eduki ditzakeen ondorioez kontziente izatea komenigarritzat jo zuen hizlariak, Estatu hauetan garatuta dituzten deszentralizazio prozesuak oso ahulak baitira eta horrek Erregioen Komitearen barnean eragin murrizta izatea suposa baitezake. Azkenik, Gobernuarteko Konferentziak Erregioen Komiteari zuzenki eragingo dioten gaiak dituzten mintzagaien artean, hizlariak horiei egin zien aipamena. Laburbilduz, eraketari buruzkoak –Erregioen Komiteko kideek izan beharreko ordezkari modua; Komitearen eredu mistoaren eraldaketa– eta eskuduntzei buruzkoak –aholku-emaille bezala dituen eskuduntzen gehikuntzari buruzko eztabaida; Erregioen Komitearen irizpenetatik desbideratuz gero, aldaketaren arrazoiak galdatu ahal izatea Komisioari eta Kontseiluari; Europako Justizi Auzitegiaren aurrean bere eskuduntzak babesteko Erregioen Komiteari aintzatetsi beharko litzaiokeen legitimazioa– izango direla kontsideratuz.

Bere aldetik, Erregioen Komiteak ezarritako lehentasunei dagokienez, bost dira sailburuordeak aipaturikoak: 1) Agenda 2000n planteiatutako gaien erantzuna ematea; 2) enpleguaren esparruan agertutako arazoei konponbidea ematea; 3) ingurugiroarekin lotutako arazoei aurre egitea; 4) Europako hiritartasuna, eta azkenik, 5) hiri-politikari buruzko auzia.

Bere parte-hartzearen bukaera bezala, Eusko Jaurlaritzako kideak ondorengo hausnarketarako baliozkoak gerta daitezkeen ondorio bat mahaigaineratu zuen: Erregioen Komiteak gaur egungo egoera arrakastaz gainditu ahal izateko premiazkoa dela organuaren eraldaketa osoari heltzea, erregioei garrantzi berezi bat eskainiz eta entitate lokalen gainetik kokatuz.

Jardunaldien inaugurazioaren ostean, Jose Maria Muñoa Ganuza jaunak, Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako ordezkaria eta Erregioen Komiteko kidea denak, nagusiki, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Erregioen Komiteak 2000.eko Gobernuarteko Konferentziarekiko defendatuko dituzten jarrerak aurkeztu zizkigun. Halere, bere hitzaldiaren muinarekin hasi aurretik, sarrera gisa, Euskadik Europako politikagintzan eta erakundeetan parte hartzeko duen interesa arrazoitzeari ekin zion. Arrazoion artean, aipamen berezia merezi dutelakoan, hiru apuntatu zituen: a) Batasun politikoak berarekin dakartzala bakea, egonkortasuna eta aurrerakuntza, benetako batasun politikorik gabe etorkizunean bakerik ez dela izango argudiatuz; b) Egungo egoera ekonomikoak benetan batutako Europa bat galdatzen duela, norabide berdinarekin jarraituko duena, ezingo baitzaie beste modutan aurre egin auzo global honen barneko erronka ekonomiko berriei, eta c) Globalizazioaren doan mundu honetan, Europak desberdintasunean oinarritutako identitate europar baten aldeko jarrera hartu duela, erabat premiazkotzat jotzen delarik marko propio baten existentzia europar kultura mantendu ahal izateko.

Hizlariaren esanetan, egungo Europako Batasunaren egiturarekin, aurrean jasotako hiru helburuok lortzea zailtasun handiz beteriko langintza litzateke. Horretaz gain, Batasuna, Ekialdeko eta Erdialdeko Europako Estatuak zabaltzeko negoziaketek ere aurrera darraitenez, epe motzean Europako Batasunak 25 edo 30 Estatu izango dituela baieztatu daiteke. Beste berba batzuekin esanda, sorrera unean sei Estaturentzat aurreikusitako erakundeetako egiturek eta erabakiak hartzeko prozedurek, zabalduko Europa berriari erantzun beharko liokete. Beraz, premiazkoa litzateke Europako Batasun optimo baten izenean, erakunde eta prozedura horien eguneratze prozesua irekitzea, hain zuzen ere, aurtengo Gobernuarteko Konferentzian tratatuko direnak.

Erregioen Komiteak, Estatu kideen ordezkari osaturiko Gobernuarteko foro honek bete beharreko funtzioen garrantzia aintzatesteaz gain, bertako negoziaketetan egotea eskatu izan du, Europako Parlamentuko kideei emaniko baimenaren antzerakoa eskatuz. Hizlariaren esanetan, lojiz jantzitako eskabidea, ezen Erregioen Komiteak Europako erregio eta entitate lokalak ordezkatzeko baditu eta hauek izanik herritarrengandik hurbilen kokatzen diren botere guneak, integrazio prozesuan interesgarriak izan daitezkeen aportazioak aurkeztu ahal izango bailituzke. Hasteko, Erregioen Komiteak ez deritza egoki Gobernuarteko Konferentzian aztertuko diren gaiak hain mugatuta egoteari, eta Komiteko kidea den Muñoa jaunaren iritziz, Konferentzia honek ahaleginak egin beharko lituzke Europa deszentralizatuago bat lortzen, non erregioei beren iritzia eta jarrerak eraginkorki baliarazteko proportzioa eman beharko litzaikeen. Gobernuarteko Konferentziak aurreikusita ez

dituen eta tratatu beharko liratekeen gaien artean, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Erregioen Komitearen osaketaren erreforma, Erregioen Komiteko kideen hautaketa sistemaren erreforma, Erregioen Komitearen beraren *status* aldaketa, Erregioen Komiteak Europako Komunitateetako Justizi Auzitegiaren aurrean izan beharko lukeen legitimazioa bere interes eta eskuduntzak defendatzeko eta horretarako garatu beharreko erreforma, aipatu zituen, beste zenbait gaien artean.

Gobernuarteko Konferentzian Estatu kideen ordezkari direnen ustetan, negoziaketak, lehendabiziko unean, Komitearen osaketa eta kideen kopurura mugatu beharko lirateke. Hausnarketa askoren ondoren, osaketari dagokionez, Erregioen Komiteak, egungo ordezkariaren kopurua mantentzearen aldeko jarrera defendatu du, Europako Batasunean barneratu diren Estatu berrietako entitate lokal eta erregionalei, proportzio berdinean, ordezkariak esleitzen. Modu honetan, gaur egun 222 kidez osaturiko foro hau, 350 kidera zabalduko litzateke.

Erregioen Komiteko kideen izaerari dagokionez, Muñoa jaunak gogora dakarkigunez, Komiteak kaleraturiko irizpenetan, behin eta berriz defendatu da ordezkari hauek kide hautatuak izan zitezela edo, behintzat, ordezkariaren duen entitate lokal eta erregionalararen asanblea legegilearen aurrean erantzun beharra eduki zezatela. Molde honetako formulak nahitaezkoztat jotzen ditu hizlariak aztergai dugun organuaren legitimitate demokratikoa indartzeko. Hauek, beraz, Erregioen Komiteak planteaturiko kuestioak Gobernuarteko Konferentziari, zeintzuekin Eusko Jaurlaritzak bat egiten duen, nahiz eta aitortu, integrazio prozesuaren egungo fasean, proposaturiko neurriak ez direla berehalakoan erdietsiko.

Nolanahi ere, nabarmenak diren mugen existentziaz ohartun izan arren, ikuspegi politikotik, Muñoa jaunaren hitzetan, Gobernuarteko Konferentziak egokiera aproposa eskaintzen du, ez bakarrik Estatu berrietara zabalduko den Europako Batasuneko erakundeak egoera berrira moldatzeko, baizik eta batasun politiko berezko baterantz bideak jorratzeko. Baina ez nolanahiko batasun politiko, erregioen parte-hartze indartsuagoa bideratzen duen –eta beraz, boterea herritarrei hurbiltzen dien– deszentralizaturiko Europan oinarriturikoa baino. Besteak beste, länder alemanek eta austriarrek eta baita Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean Eusko Jaurlaritzak aldarrikatzen duen eredu europarra litzateke deskribaturikoa.

Ondorengo ponentea, Joaquim Llimona i Balcells jauna, Kataluniako Gobernu Kanpo Harremanetarako zuzendari orokorra eta Erregioen Komiteko partaidea izan zen, zeinak "Comité de Regiones y regiones con competencias legislativas" titulupean aurkezturiko konferentzian, bere irizpide eta iritzi propioak

aurkeztu zituen, eta ez Kataluniako Gobernuarenak, azken honek ez baitu jarrera ofizialik hartu gai honi dagokionez.

Llimona jaunaren ustetan, abiagunean legokeen premisetako bat, erregionalizazio prozesua eta integrazio europarra, egun, kontraesanean ez dauden prozesuak izateaz gain, batak bestearen osagarri bezala funtzionatzen duela litzateke. Azken finean, subsidiaritatearen printzipioaren aplikazioz, botere politikoa ezin delako gobernu-maila bakar batean kontzentratu egon: botere politiko hori birbanatu eta berrantolatuko duen prozesu orokor bat existitzen baita, zeinaren bidez Europa barnean kokaturiko Estatu ugarietan deszentralizazio politikoa garatzea lortu den, erregionalizazio prozesuan sakonduz.

Begirada eskuduntzen esparruan finkatuz, Erregioen Komiteko ordezkari katalanaren iritziz, Europako Batasunaren ahalmenak gero eta gehiago zabalitzen ari dira, ente deszentralizatuen eskuduntzekin topo egiterate. Ondorioz, Europa mailako eskuduntzen koadro bat eginez gero, Generalitateko kidearen esanetan, Komunitatearen eskuduntzen eta ahalmen legegileak dituzten erregioen eskuduntzen artean sortzen den elkargunea zabalagoa da denborak aurrera egin ahala. Beraz, erabat ulergarria litzateke erregio hauek gai europarretan parte hartzeko irrikitan egotea, ezen gai horietako asko Estatu mailan beraiei dagozkienak baitira.

Azken premisak erregioen kontzientziari egingo lioke erreferentzia, ezen indartzen baitoa Europaren eraikuntzaren prozesuan erregioek parte hartzeko sentitzen duten behar politikoa. Horrela, nahitaezkoztat jotzen dute ez bakarrik Europar Batasuneko politiken aplikazioan parte hartzea (beheranzko parte-hartzea), baita ere politika horren konfigurazioan (goranzko parte-hartzea).

Europaren eraikuntzan parte hartzeko erregioen erreibindikazioa argudiatzeko asmoz eta erreibindikazio politiko hutsa ez dela arrazoitzeko, hizlari katalanak lau faktore aipatu zituen: 1) entitate erregionalek, Europako eraikuntzak zehazki eta Europak orokorrean dituen arazoei konponbidea ematen lagun dezakete, azken arazo hauen artean desenplegua eta gutxiengoaren gaiak genituzkeelarik, besteak beste; 2) erregioen parte-hartze indartsuago batek Europako Batasunaren legitimotasun demokratikoa sendotzea lekarke; 3) mugaz bestaldeko politikan eta erregioarteko lankidetzari buruzko politikan parte hartzen duten erregioen existentziak, bere lurraldearentzako onura sortzeaz gain, integrazio europarraren faktore bat ere suposatzen du; 4) nolabaiteko deszentralizazio politikoa garaturik duen Estatuetan, erregioak izan ohi dira Zuzenbide Komunitarioaren eta politika komunitarioaren aplikazioaren euskarri.

Hortaz, parte-hartzearen galdakizuna planteiatzerakoan, izaera politikoko eta borondatezko arrazoiak badauden arren, Llimona jaunarekin bat etor gaitezke, eraginkortasunaren eta europar eraikuntzaren funtzionamendu egokiarekin loturiko arrazoi objektiboagoak ere ematen direla esaterako orduan. Arrazoiak arrazoi, erregioen parte-hartzearen eremuan emaniko aurrerapausuak ez dira samurtasunez eman, Estatu kideak ez baitaude erregioek Europaren eraikuntzan benetako paper bat izatearekin ados, azken finean, horrek beren boterea ahul baitezake Europar Batasuneko erakundeetan.

Deskribaturikoa izango da Erregioen Komitearen jaiotza ikusiko duen testuingurua. Une hartan, Erregioen Komitearen genesian bertan, gerora areagotuko diren arazoak agertzen zirela argitu zuen mintzalariak. Besteak beste, Amsterdameko Tratatu ondorio bezala izan zuen 1996ko Gobernuarteko Konferentziak, Generalitateko lehendakariak garaturiko Irizpen batean jasotzen dira jaiotzako arazook. Ondoren, 2000.eko Gobernuarteko Konferentziarako landuriko Irizpenean (Van den Brande – Koivisto) ere, sustantzialki, antzerako gaiei egiten zaie aipamena. Horien artean, organua izatea eta ez edukitzean erakundearen izaera, Erregioen Komitea osatzen duten kideen heterogeneotasuna (entitate lokalak eta erregionalak), organuari esleituriko eskuduntza maila ahula eta eskuduntzon izaera kontsultibo hutsa eta, azkenik, eskuduntza edo ahalmen horien defentsan Europako Justizi Auzitegira jo ahal izateko baliabiderik aurreikusita ez egotea, edukiko genituzke.

Aurtengo Gobernuarteko Konferentziari dagokionez, Generalitateko ordezkariak ez du itxaropen gehiegirik jarri bertan, ezen Erregioen Komiteari dagokionez, behinik behin, posibletzat jotzen diren erreformak oso xumeak baitira, kideen kopuruari dagozkionak, hain zuzen ere. Jakitun izan arren Gobernuarteko Konferentzia honetan ez dela gehiegirik lortuko, Llimona jaunak, bere esku-hartzearekin amaitzeko, Erregioen Komiteak dituen premia nagusiak zeintzuk diren zehaztu zuen, horien lorpenak Komitea eskuduntza legegileak dituzten erregioentzat foro baliotsuago bat bihurtuko lukeelarik. Nagusiki, hiru mailatan kokatu zituen premiok: batetik, Erregioen Komitearen antolaketaren aldaketa, bi ganbaretako egiturara igaroaz, batek entitate erregionalak ordezkatzeko lituzkeelarik, eta bigarrenak entitate lokalak; bigarren lekuan, behin eta berriz aipatu izan den eskaria, eskuduntzak indartzearena, alegia; eta azkenik, egitura eta sistema eraginkorragoa lortzea, Komitearen barnean foro bikoitza antolatuz: batetik, egitura politikoa, non eztabaida politikoak gauzatzeko liratekeen, eta bestetik, egitura operatiboa edo teknikoa, Komiteak emaniko irizpenen jarraipena egingo lukeena.

Andreas Kiefer jauna izan zen atsedendariaren ondoren mintzatu zitzaiguna. Bera, Salzburgoko Administrazio Erregionalako Kanpo Harremanetarako zuzendaria eta Erregioen Komiteko kidea dugu. Aurkezturiko ponentziak, "Länder Co-ordination with the Austrian Government and the Committee of the Regions. Positions of the Austrian Länder for the IGC 2000" titulupean, Austriako *länderrek* Estatu zentralarekin duten lankidetzaren harremana azaltzeaz gain, haiek Gobernuarteko Konferentziari igorriko dizkieten eskariak zeintzuk diren zehaztu zuen.

Ponentziaren sarrera bezala, Austriak Estatu deszentralizatu gisa dituen ezaugarriak plazaratzeari ekin zion. Egitura politikoa eta entitate lurraldetarren deskripzioari dagokionez, Federazioa (*Bund*), 9 Estatu (*Länder*) eta 2.359 hiri eta udalerrri aipatu zituen, bakoitzaren erakundeazko egituraren zehaztasunak emanez eta baita ere Federazioa eta *Länderren* arteko eskuduntza banaketa nola gauzaten den finkatuz.

Jakina den lez, aipatu entitate lurraldetarrak Erregioen Komitean ordezkatuak egongo lirateke. Zentzu horretan, *Land* bakoitzak ordezkari bana izango luke eta, horrez gain, hiri eta udalerriek, hiru kide aukeratuko lituzkete.

Aurtengo Gobernuarteko Konferentziari gagozkioelarik, Austriako behin-behineko Gobernuak 2000.eko otsailean aurkezturiko lan-programak oinarrizko zutabe batzuk jasotzen ditu: Europar Batasunaren gardentasun eta eraginkortasunaren premia; subsidiariotasunaren printzipioaren inplementazioa eta Erregioen Komitearen estatusaren gradu igoketa. Planteamendu hauen elementurik harrigarriena, berauen tituluduna zein den zehazterakoan letorke, ezen kontuan edukitzeko da Austriako Estatu federala bera dela Gobernuarteko Konferentzian gai horiek aurkeztuko dituen.

Länderren koordinazio lanen arduraduna den Andreas Kiefer jaunak azaldu zuenez, nahiz eta pentsa daitekeen Austriako Estatuak *Länderren* interesak defendatzen dituela Gobernuarteko Konferentziarako garaturiko testu komunean, azken hauek beren jarrera islatzeko ahaleginak egin dituzte. Lehenik eta behin, Gobernuarteko Konferentzian bertan eta beronen prestaketa jardueretan parte hartzea eskatzen zuten Andreas Kiefer jaunak koordinatzen dituen *Länder* austriarrek. Zuzenean Erregioen Komitearen kuestioari dagokionez, Austriako Estatu federalak eskatzen zuen antzera, organu honen estatus aldaketaren eskaria egiten da, erakunde mailara igotzea eskatuz. Horretaz gain, kideen kopuru aldaketari buruzko eskabidea ere planteiatzen dute Austriako Landerrek, kopuru hau 350ean ezar dadila eskatuz. Azkenik, subsidiariotasunaren printzipioari aipamena egiten zaio, beronen bortxaketan aurka, eta baita Komitearen eskuduntzen bortxaketan aurka,

jardun ahal izateko Erregioen Komiteari Europako Justizi Auzitegian helegiteak tarteratzeko legitimazioa arrezagutzeko eskabidea planteiatuz.

Honela eman zitzaion bukaera goizeko saioari, ikuspegi politiko batetik aurkeztuta, Erregioen Komiteak 2000.eko Gobernuarteko Konferentziarekiko planteiaturiko eskabideak zeintzuk diren ulertzeko balio izan zizunak. Arratsaldeko saioan, ikuspegi akademikotik heldu zitzaion gaiari, horretarako bi unibertsitatetako beste hainbat irakasleren laguntzarekin kontaktu genuelarik.

Arratsaldeko lehendabiziko parte-hartzailea Rafael Bustos Gisbert jauna izan zen, Salamankako Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle titularra, zeinak "La insuficiencia de las formas de participación autonómica en asuntos europeos" titulua zeraman konferentziaren bidez, entitate lurraldearreko Europako gaietan duten parte-hartzearen kritika konstruktibo bat egitea lortu zuen: batetik, egungo parte-hartzeko formulek dituzten puntu ahulak zeintzuk diren zehaztuz eta, bestetik, ahulezia horien konponbiderako mekanismo alternatiboak proposatuz.

Parte-hartze autonomikoak dituen arazoak zeintzuk diren ezagutzeko, beharrezkotzat jo zuen Bustos jaunak aurretik AAEEden Europako erakundeetan eta erabakihartzeetan parte hartzeko duten nahia aztertzea. Hain zuzen ere, AAEEden eduki duten –eta oraindik gaur egun daukaten– ardura nagusietako bat, autonomia politikodun entitate lurraldearren parte-hartzearen intentsitatea indartzea da. Ardura honen arrazoiak nahiko ezagun eta nabarmenak dira: Europako Batasuneko kide izateak, materia askotan erabakiak hartzeko ahalmena Estatuz gaineko instantzietara aldatzea suposatzen du. Beraz, prozesu honek, instantzia zentralen eskuduntzei eragiteaz gain, autonomikoei –eta baita lokalei– ere eragiten die. Baina desberdintasun batzuekin, noski: botere zentralak, kanpo harremanetako politikagintzan dituzten eskuduntzen babespean, Europako erabakihartze prozesuetan parte hartu ahal izango dute. Hortaz, Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslearen ustez, instantzia zentralen eskuduntzen mutazioa emango da: erabakitzeko ahalmen absolutu batetik, erabakietan parte hartzeko ahalmen batera igaroaz. Aldiz, AAEEden kasuan, ez da aipatu den moduko mutaziorik sortuko, AAEEden ezingo dutelako erabakihartze prozesuetan Estatuak daukaten motako parte-hartzerik bideratu. Horrela, hizlariak, integrazio prozesu europarrak, boterearen lurralde banaketa gauzatu duten Estatuentzat arrisku zentralizatzailea suposatzen duela esateari, ez deritzo gehiegikeriak esatea denik.

Nolanahi ere, espainiar Estatuak Europako erakundeetan barneratu zenetik gaur egunerarte, AAEEden beren parte-hartze maila sendotzeko ahaleginak egin dituzte eta, astiro bada ere,

aldaketak lortu dira, nahiz eta aldaketok ez duten AAEEden egarria asetzen. Egun, azken hauek gai europarretan duten parte-hartzea bi bloketan bana genezake: alde batetik, instantzia europarren aurrean zuzeneko parte-hartzea eta, beste aldetik, barne eremuan garaturiko parte-hartzea, instantzia eruroparretan Estatuak defendatuko duen jarreraren zehaztapenean parte hartuz.

Instantzia europarren aurrean AAEEden duten zuzeneko parte-hartzea, ez da beti eredu berdina jarraituz egikaritzeko, baizik eta batzuetan instituzionalizatutako parte-hartzea izango da eta, bestetan, informaltzat jo genezakeena. Parte-hartze instituzionalizatuaren eremuan, AAEEden ordezkaritza estatalean parte hartzeko duten ahalmena –Ordezkaritza Iraunkorrean eta Europako Komisioko 55 batzordetan parte-hartze zuzena– eta Europako Batasuneko erakundeetako egituraren Erregioen Komitea) zuzenki esku-hartzea genituzke. Parte-hartze informalararen aralean, AAEEden Bruselan dituzten bulegoak barneratu daitezke, beste edozein *lobby*-ren antzera funtzionatzen dutenak, alegia.

Barne eremuan edo eremu estatalean garaturiko parte-hartzeari dagokionez, mintzalariaren hitzetan, gabezia jositako formulak dira orain arte landurikoak. Gabezia horien arrazoiak ezin zaizkio beti eta edozein kasutan Estatu zentralaren borondate ezari leporatu, erabaki-hartze komunitarioen prozesuak berak ere ez baitu gehiegi laguntzen, instantzia erregionalen parte-hartzea aurreikusita ez dagoen zerbait litzatekeelako. Halere, eta aurrekoa Estatu kide guztientzat oztopo objektibo bat bada ere, Bustos jaunak gogoratu zuenez, Europako Batasuneko hainbat Estatu (Alemania, Austria, Belgika) Estatu espainiarraren aldean, aurreraturik daude zentzu honetan. Espainiar Estatuaren kasuan, AAEEden ahotsak isla izan zezan, Europar Komunitateekin loturiko gaietarako Konferentzia Sektoriala jaioko da 1988an, zeina, botere zentral eta AAEEden artean iritzi eta informazioen elkartrukea bideratzeko foro informala izango den, zenbait urte geroago instituzionalizatutako dena (1992ko urriaren 29ko Institutuzionalizazio Akordioa).

Begibistakoa da gai europarretan AAEEden baimenduriko parte-hartzeak aldaketak jasan dituela eta hasiera batean, Estatu zentralaren jokabide erabat zentralista zena, egun gaudituta dagoela. Baina, nabarmena da, bestalde, orain arteko aurrerapausuak ez direla nahikoa izan AAEEden Europako politikagintzan subjektu aktibo izateko duten grina baretzeko. Aipagarria da Bustos irakaslearen ustez, Erregioen Komiteak zentzu honetan eginiko ahalegina: besteak beste, eta azken testuari erreferentzia egitearren, Erregioen Komiteak 1999ko ekainaren 3an onarturiko Erabakiaren, eskuduntza legegileak dituzten erregioei Europako Justizi Auzitegian beren interesak defendatzeko

helegiteak tarteratzeko ahalmena aintzatestea eskatzera dator.

Estatu barnean parte hartzeko aurreikusitako formulei dagokienez ere, kritikak dira nagusi. Alde batetik, gai europarren desparlamentarizazioa, hau da, gero eta gehiago, gai europarrei buruzko erabakiak Parlamentuak –bai estatala eta baita autonomikoak ere– alde batera utzita hartzen dituzte botere exekutiboetako ordezkariek. Beste aldetik, erabaki garrantzikoetan, parte-hartze autonomikoa bideratzeko planteiatzen diren arazoak genituzke, horren islarik esanguratsuenetakoa, ospatzen ari den 2000.eko Gobernuarteko Konferentzian erregioek duten parte-hartze hutsala litzatekeelarik.

Bustos irakasleak markaturiko ildoari jarraikiz, Eduard Roig Molés jaunak, Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleak, AAEEek Erregioen Komitean duten esku-hartzea, parte-hartzearen eskema orokorrean –Estatu zentralaren bidez gauzatzen den parte-hartzea, bulego autonomikoak Bruselan eta Europar Komunitateen politika erregionaletan parte-hartzea– kokatzera zuzenduriko konferentzia eskaini zuen. Bere ponentzian, aipatu mekanismoek beraien artean dituzten desberdintasunak zeintzuk diren eman zuen aditzera, Estatu espainiarrean AAEEek komenigarriagotzat jo dituztenez arduratuz.

Parte hartzeko mekanismoen barnean, eta zehazkiago kanpo formulen adarrean, Roig jaunak bulego autonomikoak, politika erregionalaren barnean AAEEek duten parte-hartzea eta Erregioen Komitea aipatu zituen.

Bulego autonomikoei dagokienez, funtzio sinboliko garrantzizko bat betetzen dutela jaso ondoren, abantaila nagusi bat dutela aintzatesi zuen, hain zuzen ere, beraien baitira AAEEek ordezkaritza propioa duten espazio bakarra. Horrela, bulego autonomikoetan AAEEak dira beren interesen babesle bakarrak. Aitzitik, aipatu formulak desanbantaila bat daukala nabarmendu beharko litzateke: bulego hauetatik eratorritako erabakiek sortarazten duten lotespen juridiko ezdeusa preseski.

AAEEek politika erregionalaren barnean duten parte-hartzeari dagokionez, bat etor gaitzke hizlariarekin Komunitate europarrak “galdatzen” duen parte-hartze autonomiko zuzen bakarra dela esaten duenean. Kasu honetan, Komunitate europarrak ez dio eskatzen Estatu kideari bere barneko parte-hartzea antola dezan, baizik eta, materia konkretu batzuetan, Estatu barneko erakundeen parte-hartzea eskatuko du. Ez dira, ordea, gai gehiegi izango multzo honetan barnera daitezkeenak, alderantziz baino.

Hirugarren lekuan, AAEEek Erregioen Komitean betetzen duten paperari buruz hitz egin

zuen Roig jaunak. Komite honen jardueraren elementu positiboak kontsideratuz, beronen ekimenerako ahalmena –beste modutan eremu europarrean barneratuko ez liratekeen gaien eztabaida sustatuz– eta erregioarteko elkarlanean betetzen duen papera azpimarratu zituen.

Barne parte-hartze formulen alorrean, aurreko hitzaldian Bustos irakasleak aipaturiko Europako gaietarako Konferentziari egin zio erreferentzia Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak, beronen funtzionamenduaren arrazoituriko balorazio negatiboa eginez, gainera. Arrazoen artean, besteak beste, Konferentzia hauen tradizio falta Estatu espainiarrean, funtzionamenduari dagokionez arloko ministroaren borondatearen menpe egotea, formalizatu gabeko sistema bat izatea eta gai europarrei buruzko ezjakintasuna eta interes falta aipatu zituen.

Azkenik, ekitaldiaren bukaeran, Zuzenbide Administratiboko katedraduna eta Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Saileko lehendakaria den Jose Manuel Castells Arteché jaunak, Eusko Ikaskuntzari honelako foroak antolatzeagatik eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzari ekonomikoki laguntzeagatik eskertu ondoren, Jardunaldiak klausuratu zituen.